

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durango Udala****«UE-15 Iparzabalarra» antolamendu-eremua urbanizatzeko jarduketa-programaren hasierako onespina (1070/2023/BT espedientea).**

Alkatetzaren 2024ko uztailaren 2ko Dekretuaren bidez, hasierako onarpena eman zaio «UE-15 Iparzabalarra» Jarduketa Integral Bakarreko Eremuko Urbanizatzeko Jarduketa Programaren aldaketari.

Iragarkia argitaratu eta hurrengo hogeita (20) laneguneko epean azter daiteke espedientea udaletxe honetako Bulego Teknikoan eta web orrian (www.durango.eus). Hone-la, nahi duenak egoki iruditzen zaizkion alegazioak aurkeztu ahal izango ditu.

Urbanizatzeko jarduketa-programaren funtsezko edukia:

- Hiri-lurzoru finkatugabearen antolamendu xehatua: plan berezia.
- Hirigintza-eraikigarritasuna: 14.471 m².
- Jarduketa-sistema: Hitzarmena
- Sustatzailea: Durango Iparzabalarra 15 egikaritze-unitateko Hitzarmen Batzordea.
- Antolamenduz kanpoko egoera: hainbat eraikin antolamenduz kanpo daude. Honako hauek dira: Zabalarra kalea 11, 17 eta 19.
- Beste bizileku bat emateko baldintzak: Urbanizatzeko jarduketa-programaren F.3 atalean jasotzen da birkokatze-programa. Birpartzelazio-proiektuan berariaz jaso beharko da etxebizitzaren legezko okupatzaileen eta funtzionamenduan dauden jarduera ekonomikoen titularren zerrenda, eta horiekin lortutako akordioak erantsiko dira kalte-ordainetarako, birkokatze edo lekualdatzeko, eta horiek eskritura publikoan jaso beharko dira. Akordiorik ezean, birpartzelazio-proiektuarekin batera birkokatze, lekuz aldatzeko edo jarduera amaitzeko hitzarmen-proposamen bat aurkeztuko da, eta Durango Udalak onartu beharko du. Proposamen horretan, 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian eskatzen den gutxieneko edukia ezarriko da.

Unitateko urbanizazio-aurrekontua: 1.574.458,42 euro, BEZik gabe.

Durango, 2024ko uztailaren 5ean. — Jarduneko Alkatea, Sara Oveja Salazar